

ta Sainduari. Carlos erregearen mandatari baten bisita izan zuen, ustekabea. Garrantzizko mezua zeraman erregearen mandatariak, gerora jakin denez: apezpikuak proposatzeko "eskubidea" bertan behera uzteko asmoa agertu nahi zion Erregeak Aita Sainduari.

Ustekabeko erabakia erregearena, bai Erromako Aulkiarentzat, bai espainol Gobernu berarentzat ere. Esan beharrik ez, Paulo VI.ak atsegin handiz hartu zuela bisitaria.

Berez ere garrantzizkoa zelarik, are gertatu zen albistearen beste alde hontatik harturik: 1953ko Konkordatoa nola berritu elkarrizketarako bide urraketa gertatzen zelako. Izan ere, II. Batikano Kontzilioaz geroztik, guztien ahotan eta burutan zebilen puntua zen hori: 1953ko Konkordatoa aldatu beharrean zela alegia. Hortarako, ordean, ezinbesteko baldintza aipatu "eskubide" hori (apezpikuak proposatzeko alegia) uztea zen Erromako Aulkiaren aldetik. Ez zuen onartu nahi horrelakorik espainol gobernuak. Eta Juan Carlosek aipatu egun eta mandatari horren bidez, urrats horixe du egun.

Urrats handia, beraz, konkordato arkaiko hori azpikoz gora botatzeko. Hain zuzen ere, jadanik espainol Gobernuaren eta Erromako Aulkiaren esku dagoke arazo horri gorputz bat ematea. Eta lehenetik idazten ari naizenerako egina dute akordio bat aipatu partaide biek: hurrengo apezpikuak proposa-

zako gartzela pribilegiatua esaterako, e.a.).

Bistan da puntu biok mantentzeko jarraitzeko arrazoinik ez dela: ez du gobernu batek zertan buruntzalia sartu apezpikuak izendatzeko; ez du batek, apaiz delako, beste herritar batek ezbezalako pribilegiarik izateko arrazoinik.

Nornahik sumatzen du, noski, puntu biok aldatzeak beste mailarena dakarkeela. Izan ere, aldaketak horiek, nola gizartearen buruzko ikusmodua, hala gizarte eta Eliza arteko harremanetaz, berriztapen handia egin dela agertzen bait dute: apezpikuak izendatzeko zerikusirik ez duen gizarte moldea ez da orain dela hogeitak urtekoa, apaiak edozein herritarren mailakotzat jotzen dituen gizarte moldea ez da gure gurasoena...

Baina, puntu konkretuago batetara gatzelarik, apezpikuak proposatzeko "eskubideari" uzten diot Gobernuak, ez du ematen, arrazoin handirik duenik eliz diozesien mugak zer-nolakoak behar behar duten izan esateko, ez eta diozesien arteko harremanak nola moldatu behar diren.

Easana nahi da, diozesia zein lurraldetara mugatu ala zabaldu, Gobernuak ez, baina elizak erabaki beharko duela: ez duela balio "probintzia zibila berdin diozesia" zelako kriterioak. Horrez gero, orain ikusiko da zer-nolako kriterioak dituzten gure apezpikuek euskal diozesien antolaketa burutzeko. Orain bazuketan (beren usuez bederen) arrazoinik, Iruinea alde batera eta Bilbo beste batera ia-

ten...

Egiaz eta zinez, jakin minez naukazue, eta gauzakazue: zeren bat eta bi baino gehiago bait gara arazo hortaz aspaldidanik kezkatu-rik garenok. Lekuko hainbat eta hainbat izkribu. Azkenekoa, zeu-**on, Euskal Herri** erdiko apezpikuon inguruan den erakunde edo delakoaren eskabidea **duzue**.

AMUNSA

ZESAROKRAZIAK...

iturburu nazionaletatik atera nahi izaten dituzte, behar dituzten ideiak beren demokraziaren (eta beren sozialismoaren) orijinaltasuna garbi gera dadin. Perun, Inkaen tradizio sozialistatik. Libian, Koranetik. Kongon, tribu tradizio afrikanoetatik eta Indonesiaren berdintsu.

Hori dena ez da harrigarria. **Eta**, guretzat, batez ere mundua nola dabilen ikusteko da interesgarria hori.

Baina beste hau are inportanteago da guretzat: Potentzia Haundiek nahiago dituzte halakoxe Gobernuak, solaskide eta partzuer seguruagoak baitira Gobernu demokratiko aldakorrak baino. Munduaren partizioa egin dagoenez, sorpresarik ez da nahi.

Potentzia Haundientzat orain gerta litekeen gauzarik okerrera, mundu honek bere "ekilibrioa" galtzea litzateke: gerra atomiko baten arriskuarekin eta hori dena. Eta Potentzia Haundiek inmo-